ASTEAZKENA

Egunkaria euskaldunon

egunkaria@egunkaria.com www.egunkaria.com

2002ko otsailaren 13a – XIII. urtea – 3.474. zenbakia

zakilixut



ATZEKOZ AURRERA

Nagore Rodriguez | DONOSTIA



Inauterietako kolore, haurren mozorro

Momo erreginak opariak banatu zituen atzo Donostiako Ospitalean



GARI GARAIALDE / ARGAZKI PRESS

Egun batez kolorea nagusitu zen Donostiako Ospitalean eri dauden haurren artean.

Atzo amaitu ziren inauteriak. Festak giro berezia eraman zuen Donostiako Ospitalera. Olentzeroren antzera, opariak banatu zizkien atzo inauterietako Momo erreginak kalean inauteriez gozatu ezin ziren haurrei.

Eguerdi aldean txarangarekin batera iritsi zen inauterietako erregina ospitalera; ordurako ohean txintxo-txintxo eserita zeuden pediatriako 3. solairuko haurrak.

Gelaz gela puzzleak eta baloiak banatzen aritu ziren Momo erregina eta bere bi laguntzaileak. Haurrek gustura jaso zituzten opariak; txikienek, berriz, negarrez agurtu zituzten bisitariak.

Ospitaleko horma urdinak kolorez jantzi dira egunotan, eta hainbat gelatan nabaria da inauteri giroa. Globoek, karetek eta era guztietako apaingarriek alaitzen dute Jokinen gela. Gaztetxo honek gustuko ditu inauteriak, eta bakeroz jantzita itxaron zuen oparitarako bere txanda; txarangaren doinuek Momoren etorreraren berri eman bezain laster, alaitasuna nabari zen Jokinen aurpegian.

Guztiek, ordea, ez zituzten horren pozik hartu atzoko gonbidatuak. Txikienak izutu egiten ziren txarangaren doinuekin eta Momoren mozorro dotorearekin. Beste batzuek nonbait opari gehiago espero zituzten. Ander bost urteko gaztetxoak pozik zabaldu zituen opariak, baina guztia ireki ondoren «gehiago ezer ez?» galdetu zuen. Batzuentzat, eguneroko jardunean tartetxo bat egiteko balio izan zuen atzoko bisitak. Xabier matematikako ariketak egiten harrapatu zuten, eta jostailuek matematiken lekua bete zuten ondoren.

Opariak gustura eta harrituta jaso zituzten, baina, horrez gain, bertan bildutako telebista eta argazki kamerek ere txundituta utzi zituzten haur guztiak, eta egun batez telebistako izar sentitu ziren kameren aurrean.

Inauteri giroan murgiltzeko txarangak derrigorrezkoak izaten dira, eta horregatik atzo ere ezin izan zuen musikak hutsik egin. Mexikarrez mozorrotutako musikariek lan handia egin zuten, eta haurrentzako hain ezagunak diren *Pintxo,pintxo* bezalako abestiekin giro bikaina sortu zuten ospitaleko korridoreetan.

Haurrez gain, guraso eta langileek gustura jaso zuten inauterietako erreginaren bisita. Txarangaren atzetik ibili ziren, eta Momorekin argazkiak atera zituzten.

Dudarik gabe, atzokoa egun berezia izan zen Donostiako Ospitalean dauden haur gaixoentzat, kalean inauteriez gozatu ez arren festa giroan igaro baitzuten goiza.